

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Euskara udaletan:
1999an euskara zerbitzu gehiago helburu

2 • Andres Iñigo Ariztegi;
euskaltzain oso
• Laburrak:
MELIN proiektua
Arlan, euskara lan mundua
Euskara eta kultura Nafarroan
Pat Bieter-en heriotzean

3 • Hizkuntza Politikarako agenteen bigarren bisita
• Agenda:
Martxoan, Korrika 11

4 • Euskal Idazle Klasikoak
• Sariak sailean

1999an euskara zerbitzu gehiago helburu

EUSKARA UDALETAN

Euskara udalgintzan errotzea dute helburu udaletako euskara zerbitzuek. Ondorioz, udalaren eguneroko eginkizunetan normalkuntza sustatzen eta lana euskaraz bideratzen laguntzen dute.

1999an ere, mankomunitate edo kuadriletako euskara zerbitzuek izango dute lehentasun, eta udalbatzek finkaturiko hizkuntza-politika jarraitzea, koordinatzea eta ebaluaketarako datuak eskaintzea izango dute lehenengo lantegi. Plana diseinatzea, garatzea eta jarraitzea egokitu-ko zaie, beraz, udal administrazioaren eta herri mailako lehentasunen arabera.

Euskara kalean eta udaletxean

Udaletxeko lanpostuei hizkuntz eskakizuna egokitu behar zaie, derrigortasunak ezarri, epeak finkatu eta langileen euskalduntze nahiz alfabetatze-ari ekin, plangintza egokiaren bidez. Herritarrek gogoan, eguneroko harremanetan euskara erabili-ko dela ziurtatu behar da.

Euskara zerbitzuek, gainera, euskara indartzeko ekintzak bultzatu ohi dituzte. Ondorioz, garrantzi handiko da euskararen erabilerrako hitzarmenak sinatzea herri-erakundeekin. Kirola,

aisialdia, eskolaz kanpoko ekintzak, familia bidezko transmisioa... bereziki zaindu beharreko arloak dira. Zenbaitetan udalak berak antolatuko ditu ekintzak. Beste zenbaitetan, aldiz, dirulaguntzez baliatuko da, hizkuntzaren normalizazioaren aldeko jarduerak bultzatuz.


Udalak eta mankomunitateak

Lan guztiok oso pisuak zaizkie, maiz askotan, udal txikiei. Ondorioz, eskualde mailako erakundera jo beharrean dira, hau da, mankomunitatera. Izan ere, udalaren mugak gaituzten dituzten eginkizunak bideratzeko eta baliapideak hobeki erabiltzeko, mankomunitateetan elkartzen ari dira udal txikiak. Hizkuntza-politikari dagokionez ere, egokiago erantzuteko moduan izango dira.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza-Politikarako Sailordetza ahaleginean ari da, deialdi eta dirulaguntzen bidez, azpiegitura teknikorik ez dagoen tokietan gutxieneko euskara zerbitzuak sortzeko. 1996an egin zen lehenengo deialdia eta iaz bertan hemeretzi udalek izendatu zuten euskara teknika. Beharrian denak ez dira ase oraindik, jakina, baina horretarako abiaraziko dira aurrean euskara zerbitzu gehiago.

HIZKUNTZA AZPIEGITURAK

Euskara zerbitzuen mapa 1998



laburrak

MELIN PROIEKTUA

Europako lau hizkuntza gutxituren arteko webgunea da MELIN (Minority European Languages Information Network). Helburua, gune eleanitza sortzea lau hizkuntzatarako: euskara, galesa, Irlandako gaelikoa eta katalana. Webguneak lau hizkuntza gutxitu horien inguruko baliabide linguistikoak bilduko ditu eta martxoan berean hiztegi sorta jarriko du *online*.

ARLAN, EUSKARA
LAN MUNDUAN

Lan munduan euskararen erabilpena sustatzeko plana egina du Bizkaiko Arlan enpresak. Eraikuntzarako tresnak alokatzen eta saltzen ditu Arlan-ek eta, oraindik orain, euskaraz eta gaztelaniaz ageri diren zenbait iragarki aurkeztu du, batean eta bestean jarri ohi diren behin-behineko komun publikoetan eransteko.

EUSKARA ETA
KULTURA NAFARROAN

Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolatutako duen erakusketa da. Panel, ordenadore, testu, grabazio eta diaporamenez bidez, euskarak Nafarroan izan duen iragana eta duen oraina aztertzen ditu. Erakusketa ibiltaria da, Iruñean aurkeztu zuten eta Donostian ere izan da. Ondoren, beste hainbat herritan erakutsiko dute. Hurbil Kulturgaiak etxeak prestatu du eta hamar milioi pezetako aurrekontua izan du.

Federiko Krutwigen tokia hartu du

ANDRES IÑIGO ARIZTEGI,
EUSKALTZAIN OSO

kide da, eta Euskaltzaindiaren ordezkari Nafarroan. Hainbat ikerketa lan eta argitalpen egina du, bai euskararen irakaskuntzari buruz eta bai onomastika eta toponimiaz ere.

Nafarroako Euskararen Kontseiluko kide ere izan zen, joan den urtarrilaren 22an dimisioa aurkeztu zuen arte.

Joan den otsailaren 26an Baionan egin zen bileraz gero euskaltzain oso da Andres Iñigo Ariztegi. Jakina denez, Federiko Krutwigek Euskaltzaindian utzitako hutsunea beteko du.

Andres Iñigo Geografia eta Historiako lizentziaduna da, eta Filosofia eta Letretan doktore. Irakasle izan da urte luzez, San Miguel de Aralar ikastetxean lehenengo, Iruñeko Hizkuntz Eskola Ofizialean ondoren, eta Nafarroako Gobernuaren agindupeko helduen ikastaro trinkoetan hurrena. 1987an izendatu zuten euskaltzain urgazle. Onomastika batzordekide eta Jagon saileko

Jose Antonio Arana Martija, Henrike Knörr, Jose Maria Satrustegi eta Juan San Martin izan ziren Federiko Krutwigek utzitako hutsunea betetzeko Andres Iñigo Ariztegi aurkeztu zutenak, eta Henrike Knörrek ongi laburtu zuenez: "Oso euskaltzale ezaguna da. Iruñeko Hizkuntz Eskolako zuzendari izan da, eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria da. Tesia egina du Nafarroako toponimiaz., Nafarroako Unibertsitatean aurkeztua ni epaimahaian nintzela, eta esan dezaket oso tesi ona dela".

PAT BIETER-EN HERIOTZEAN



Dolumenez dira EEBBetako euskaldunak. Joan den urtarrilaren hondarrean auto istripuan hil ziren Pat Bieter eta bere emazte Eloisa Garmendia. *Basque Studies Program*-en sortzaileetarikoa izan zen Pat Bieter eta sona handikoa da Bieter familia Boiseko euskaldunen artean. Sortzez amerikarra izanik, Idahon jaiozko Eloisa Garmendiarekin ezkonduz zaletu zen euskaldunetara Pat Bieter. Unibertsitate irakasle zelarik, ikasle euskal-amerikarrez osaturiko taldea bideratu zuen Oñatira 1975ean. Hain zuzen, Renoko (Nevada) Unibertsitateak Euskal Herrian garatu duen ikasle programaren hazia erein zuen: *Basque Studies Program*-en oinarriak jarri zituen.



HIZKUNTZA POLITIKAKO AGENTEEN BIGARREN BISITA

Eremu Urriko Hizkuntza-Komunitateetako Normalkuntzako Agenteen Sarea izeneko programa abiarazi zuen iaz Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Europako Elkartearen laguntzaz. Programaren bitartez, Europako Batasuneko estatuetan hizkuntza-politikan ari diren agenteen elkar ezagutza eta esperientzien trukatzea eragin nahi da eta, horretarako, egonaldiak antolatu ohi dira Autonomia Erkidegoan, hizkuntza politikako erakundeetako ordezkarientzat.

Lehenengo egonaldia Generalitat-eko eta Xunta-ko bina teknikarik egin zuten, joan den azaroaren 23tik abendua-

ren 4a arte. Bigarren bisitaldia otsailaren 15etik 26ra izan da eta bertan ordezkaturik izan dira Atlantiko aldeko Pirineoetako Kontseilu Nagusia, Euskal Kultur Erakundea, Institutu Okzitania eta Languedoc-Roussilloneko Okzitanoaren Garapenerako Eskualdearteko Zentroa.

Landu dituzten gaien artean, berriz, ikerketa soziolinguistikoak, euskararen sustapena, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, euskara administrazioan, hezkuntza, hedabideak, euskararen corpora, helduen alfabetatzea, euskararen erabile-
ra planak: lan munduan eta administrazioan, euskara eta gaz-
teria...

agenda

MARTXOAN, KORRIKA 11

Korrikaren hilabetea izango da aurtengo martxoa. Iruñean hasiko da hilaren 19an eta 28an bukatuko da Donostian. Korrikaren 11. aldia konpromisoz jantzi nahi izan du AEK-k eta aurten, Korrikako kilometroren bat erosten duen erakunde edo elkarteari euskara bultzatzeko konpromiso zehatz bat eskatuko dio.

Bestetik, orain arteko Korrikaren edizioetan erabili izan den lekukoa -Remigio Mendiburuk egina, alegia-, Donostiako San Telmo museoa gordeko da.

HAMAIKA OMENDU

Korrikak 11 lagun omenduko du aurten, hainbat alorretan euskararen alde ari direnak ere hamaika direla gogoratzearren. Hala ere, hona bereziki izendatuak:

Pedro Miguel Etxenike, zientzialaria.

Jose Ramon Etxebarria, unibertsitate irakaslea.

Jose Angel Iribar, kirolaria.

Maitena Araguas, Iparraldeko AEK-ko irakaslea.

Etxepe, Elgoibarko enpresa.

Mendia Optika, Gasteizko enpresa.


Laudio Ikastolako sortzaileak: Milagros Etxezarraga, Maria Jesus Legarreta eta Maite Larizgoitia.

Argiñe Iturregi, Sestaoko Kueto eskolaren sortzaile eta irakaslea.

Euskalerrria Irratia.

Arantzta herria.

Maiatz kolektiboa.




SARIAK SAILEAN

V. CAF-Elhuyar
Dibulgazio sariak

Adelaida Sanchez eta Arantxa Sarasuak idatzitako *Tropikoetatik ekarritako oroigarriak* izeneko lanak irabazi du aurtengo sari nagusia. Artikuluak, lurralde tropikaletara joaten diren pertsonen handik itzultzean ekartzen dituzten gaisotasunak eta hauek ospitaleetan sortzen dituzten arazoak aztertzen ditu. Bigarren saria, Fernando Morilloren *Erraldoi herrena* (*Zientziaren alderdi ilunak*) lanarentzat izan zen eta hirugarrena, berriz, Asier Sarasuaren *Gasteizko berdeguneak kudeatzeko geografia-informazioko sistema baten garapena* izeneko dibulgazio artikularentzat.

Donostia Hiria



Zalditxero

Javi Cillero (argazkian) eta Fernando Morillo izan dira aurtengo Donostia Hiria literatur saridunak. Uztailearen 4a, Renon da Javi Cilleroren antzezlanaren izenburua, eta Gudaoste ametsak, berriz, Fernando Morilloren ipuinarena. Apirilean argitaratuko dira saritutako idazlanak eta antolatzaileek adierazi zutenek, aurreko urteetan baino kalitate handiago izan da. 49 ipuin eta 12 antzezlan aurkeztu dira aurtengo Donostia Hiria lehiaketara.

Argia sariak



ARGIA

Alberto Barandiaran, prentsa idatziaren; Bizkaia Irratia, irrati atalean; "Hitzetik Hortzera" programa, telebistan; Aitor Lopez de Aberasturiren "Kaixo" bilatzailea, Interneten; "Eguberri zorionsuak", publizitatean; eta Senideak eta Eusko Ikaskuntzaren "Euskonews&Media" astekari elektronikoa izan dira 1999ko Argia sarien jabeak.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 18 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es



Euskaraz



Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

EUSKAL IDAZLE KLASIKOAK

Txomin Agirre, Jean Saint-Pierre eta
Jean Baptiste Constantin

Hiru idazleren lanak argitaratu dituzte Euskal Idazle Klasikoak bilduman. Txomin Agirreraren *Auñemendiko Lorea*, Jean Saint-Pierreren *14eko Gerla Handia*, eta Jean Baptiste Constantinen *Haritchabaletaren bizia*. *Don Juan eta bere adixkideak* liburuak dira sailean kaleratu diren liburu berriak. Edizio arduradunak izan dira, hurrenez hurren, Ana Toledo, Piarres Xarriton eta Patri Urkizu.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskal Editoreen Elkarteak sinatua duten hitzarmenaren ondorio da Euskal Idazle Klasikoak bilduma.